



## ZE ESATEK!

Ze Esatek! taldea 2008ko abenduaren 7an eratu zen. Entsegu lokalean bertsoiak eta euren kantuak nahasian zihozten bata bestearen atzetik. Ze Esatek! taldearen ideia Trikizio taldeak AEBtara egindako bidaia batean sortu zen; talde alai, jaizalea eta algara ongi kudeatuko zuena zuten buruan. Hamar kide eta hamaika ibilbide musika atalean. Musikari guztiek jo izan dute beste talderen batean. Hemen zerrenda: Vierbu (Nuke), Julen Valderrama, Unai Arzelus (Harlax), Frank Lopepé (Skunk), Xabier Arakama, Unai Frantsesena, Mikel Albisu (Trikizio), Antton Albizu, Mikel Albisu, Jabier Rodil, Julen Valderrama, Unai Arzelus, Alexander Arrieta, Xabier Arakama (The Txortains), Unai Frantsesena (Kepa Junkera).

Teoria praktikara eramatea gauza ederra da, pentsamendua eta ekintza eskutik hartuta. Jarrera eta testua bat engaiamenduaren ildotik. Ze Esatek! taldea ausartu da, eta gainera, oso denbora laburrean. Ze Esatek! taldearen lehen agerraldia 2009ko urtarrilaren 23an izan zen, Iruñean egin zen Korrika ekimenaren aurkezpenean. Ze Esatek! taldea elkartu zenetik, estreinako zuzeneko 45 egunera. Orain arteko ibilbidean 50 zuzeneko eman ditu eta taldea osatu eta handik urtebetera diskoa grabatzera sartu. Ez dabilta makal. Telebistako "Hitzetik hortzera" bertso saiorako abesti bat egin dute sintonia modura erabiltzeko. Ze Esatek! taldeak, halaber, hainbat proposamen eduki ditu abestiak egiteko antolatzaile edo erakunde desberdinentzat.

Ze Esatek! taldea arin bezain indartsu iritsi da lehen diskoaren argitarapenera. 2009an zehar taula gainean jotako abestiei beste kantu sorta erantsi, eta diskoa grabatzera sartu ziren Paxkal Etxepare teknikari eta gitarra jotzailearekin (Ikus). Etxeparearen lan isila aintzat hartu du hainbat musikaririk, eta Hazparnen (Lapurdi) eraikitako estudioa jo zuen Ze Esatek! taldeak 2009ko abenduan eta 2010eko urtarrilean. Masterizazioa egiteko Bordeleko Globe Audio Studioa aukeratu dute. Hamar kide, batzuetan, nahikoak eta gehiago dira diskoa grabatzeko. Ze Esatek! taldeak ez du beste laguntzailerik behar izan.

Ze Esatek! taldearen aurreneko lanak ez du izenbururik; homonimoa da, beraz. Ze Esatek! taldeak egiten duen musika proposamenak jai eta dantza batzen ditu. Doinuen algararen artean doaz etengabe abesti guztiak. Alaitasuna, bozkarioa, bizipoza eta goraldi izugarria eragiten dizu Ze Esatek! taldearen musikak. Musikaren mugimendu bizkorrek

kutsatu egiten dute berehala, behiak kortan horman gora ibiltzea bezala. Ondorioa: alaitasuna musika bihurtzen dute. Ze Esatek! taldeak musikaren plazera abenturatzat hartu du. Ska, reggaea, zingaroa eta rocka festa giroan. Ze Esatek! taldeak bere arte konprometituarekin ez dio muzin egiten, inola ere ez, kaleko eta hiriko matxinadari, ezta horrek dakartzan bizitzeko aukera suspergarri eta zintzoagoei. Musikari atera nahi dioten etekina festan eta dantzan datza. Dibertimendua, olgetako gogoia, garai bateko haize freskoa barrukoa berotzeko. Ze Esatek! taldeztarra da, euren musika legez.

**Ze Esatek! taldeak jai eta dantza musika bihurtzen ditu, doinuen algararen artean. Ze Esatek taldeak musikaren plazera abenturatzat hartu du.**

Hasieratik genuen garbi gurea festa dela. Guk ez dugu ezer berririk asmatu egungo musika munduaren barnean, ez dugu ezer irauli. Festa eta parranda zaleak gara berez, eta hori ere kantuen konposaketetan eta oholztan dugun jarreraren nabaritu egiten da. Ondo pasatzen dugu jotzen, oinarritzko erritmo eta armoniak dituzten gure abestiek. "Do, fa, sol" filosofiakoak gara: kantu errazak, politikak eta sarkorrak.

**Ze Esatek! taldeak bere arte konprometituarekin ez dio muzin egiten, inola ere ez, kaleko eta hiriko matxinadari, ezta horrek dakartzan bizitzeko aukera suspergarri eta zintzoagoei.**

Gure abestien hitzetan guk guztiok ditugun ezinegonak eta pozak islatzen dira. Pertsona xumeak gara, gure arazo eta zoriontasunekin. Bizitzarekin dugun konprometuzua gure hitzetan agertzen da: amodioa eta gorrotoa, ekonomia, lana, natura, festa... Guztia hori bezain oinarritzkoa da, garena eta sentitzen duguna gure abestietan azaltzea. Ez da nahita egiten dugun zerbait, naturalki agertzen da. Horrelakoak gara.

**Ze Esatek! taldeztarra da. Hamar lagun oholta gainean ongi konpontzeko, entsegu askoren beharra izango dute.**

Lagun talde bat gara funtsean: hasteko hor konpondu behar dugu ondo, ondoren musikalki ondo konpontzea errezago izaten baita. Eta hori hasieratik lortu dugu. Astean behin elkartzea lortu dugu eta ez da batere erraza hamar laguneko talde batean. Bakoitzak bere bizitza du eta guztiona ezberdina da. Hala ere, lortu genuen entseguetarako egun bat finkatzea eta horrek bere fruituak eman ditu.

ritxi aizpuru (2010eko martxoaren 3)

**Vierbu:** gitarrak  
**Julen Valderrama:** gitarrak, ahotsa  
**Unai Frantsesena:** bateria  
**Antton Albizu:** tronpeta  
**Alexander Arrieta:** saxofoia  
**Frank Lopepé:** tronboia  
**Unai Arzelus:** baxua  
**Xabier Arakama:** trikitixa, txalaparta  
**Mikel Albisu:** ahotsa, txalaparta  
**Jabier Rodil:** ahotsa

